

Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdiaren 44. edizioa uztailaren 15etik 18ra ospatuko da

Datorren igande honetan Letter One Rising Stars jazz sariaren proiektu irabazlea ezagutuko da, aurtengo edizioko programaren parte izatera pasatuko dena.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 5a. Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdiak 2021 honetan bere 44 edizioa, pandemiagatik joan den urtean atzeratu behar izan zena, berreskuratuko du.

Uztailaren 15etik 18ra unearen osasun-baldintzei egokitutako formatuarekin jaialdi hau burutuko da. Horrela, jazz jaialdiaren erakundea pandemiaren bilakaerari eta osasun-autoritateen oharrei beti adi dago.

Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdiak Letter One Rising Stars jazz sariaren musikari irabazlearen presentzia aurten izango du. Sari honen zeremonia bihar ospatuko da eta @jazzvitoria-ren sare sozialen bidez zuzenean jarraitu ahal izango da.

Nazioarteko sari honek Europako eta Iparramerikako musika-talentu berria golardatzen du, irteera-aukerak nazioarteko agertoki handietara hari emanez. Horrela, munduko jazz jaialdi prestigiotsuenetan bira batean parte hartzea saria da, Vitoria-Gasteizkoa, Europar bira bertsio honetan, estatuko jazz jaialdi bakarra izanez.

Nazioarteko jazz sari honen irabazlea joan den urteko irabazleari batuko litzaioke, Kathrine Windfeld piano-jotzaile eta konpositore daniarra, zeinen aurkezpena pandemiaren ondorioz ezeztatu behar izan zen.

Vitoria-Gasteizko Jaialdia bere zaleei berriro ere jazz onenaren ordezkaritza eskaintzearekin poztuta azaltzen da. Arren, zaleen eta musikarien segurtasuna beti nagusituko da eta autoritateak ezartzen dituzten arauak betetzerakoan oso zorrotza izango da.

Jazz Jaialdiaren prentsa bulegoa: Marieta Vargas
prensa@jazzvitoria.com / 600.801.707